

Futbola gustatzen zait, baina zuena ez

Amagoia Mujika
Telleria

Gizonik kabalenak ikusi ditut “tximinotzen” futbola dela medio. Maldizioka eta oihuka, bihotza eztarritik gora, epailearen amarekin gogoratzen, jokalariren baten azal kolorea madarikatzen, beste baten “maskulinitasuna” zalantzan jartzen. Desastre hutsa. Nire harridura-larridura aurpegiari begira geratzen dira batzuk –konturatzeko gai direnak bakarrik-. «Ezin duzu ulertu, ez zaizu futbola gustatzen». Bai, futbola gustatzen zait, baina ez zait zuen futbola gustatzen.

Ingalaterra eta Italiaren arteko Eurokopako finala ikusi nuen. Zirrargarria, sofaren izkinan erdi eserita erdi zutik ikusten den horietakoa. Eta nire inozo-

an, ez nintzen akordatu finala bestelako dardaraz ikusi zuten emakumeekin.

Londresen egindako ikerketa batek mahai gainean jarri du datua: futbol partiduek indarkeria matxista sufritzeko arriskua areagotu egiten dute. Ingalaterrak jokatzeko duenean, indarkeria matxista %26 hazten da eta partidaren bat galtzen duenean, %38. Horregatik, Erresuma Batuko indarkeria matxistaren nazioarteko zentroak kontzientziazio kanpaina bat jarri zuen martxan finala baino aste batzuk lehenago. Ez, herritar guztiak ez zeuden finala ikusteko desiatzen, futbola ere indarkeria matxistaren aterkia baita. Galdu edo irabazi, “tximinotzen” direnen pozak eta penak ema-

kumeen bizkarretan eta masailetan erortzen dira. Finalaren egunean bertan, sare sozialetan emakume askok eskaini zieten aterpea indarkeria matxista sufritzeko arriskuan zeudenei.

Finalaren biharamunean albistea entzundakoan amorratu egin nintzen. Ez zitzaidan ulertzeko zaila egin. Futbolak pizten dituen pasioak zein matxistak diren ikusita, ez da harritzekoa. Eta horregatik ere amorratu nintzen, ez delako harrigarria. Amorragarria bai, baina badakigu nondik datorren biolentzia hori. Eta okerrera da Ingalaterran bistaratu dutela, baina toki guztietan txakurrak hanka-hutsik eta futbolero eroak burua hutsik. •

Euskal tradizioak

Koldo Sagasti

Azterketa (aldez aurretik) ez ze-neukala kontuan izanik, ez du-zu batere gaizki egin», esan zion gerora Eusko Jaurlaritzako sailburua izango zen kardiologoak tranparik egin gabe –alegia, probaren aurretiazko filtraziorik jaso gabe– espezialista plaza atera zuen sendagile bati. Halaxe salatu zuen profesionalak Osakidetza oposizioetako iruzurra aztertzeko antolatutako ikerketa batzordean. Goi karguak, seguruenik, adierazpen salatzaile hura egin zuenean, ez zuen trakeskeriagatik egin, ezta ezer txarrik egi-ten ari zelako kontzientzia txarrez ere. Profesionalen artean gauza jakina da Osakidetzan betidanik horrelaxe bana-tu direla erantzukizun lanpostuak, au-

keratuei lehenagotik azterketako galde-rak pasatuz. Tradizioa da.

Euskal Trenbide Sarea elkarte publi-koak ia milioi bateko kontratua eslei-tzeko lehiaketa antolatu zuen otsailean. Lehiaketarako baldintzak biltzen zituen agiriak gerora kontratuaren esleipena-ren onuraduna izango zen enpresaren izena zeraman: «contrato Sener». Agiria prestatu zuen funtzionarioak pentsatu-ko zuen, nonbait, enpresak berak idatzi-tako dokumentuari izena aldatzea nahi-koa zela, jatorrizko izena dokumentuaren metadatuak iltzatuta geratuko bazen ere. Eta ez zuen baldar-keriagatik egingo, ezta damu txarrez ere; gauzak, betidanik, horrelaxe egin direlako baizik.

Herri honetan ez da saritzen gaitasun profesionala, ezta merituak ere, batzo-kiarekiko gertutasuna baizik. Hain dago errotuta politika etika hori administra-zioaren eguneroko jardunean, non nor-maltzat hartzera ere iritsi garen. Tradi-zioa da. Hamarkada askotako agintekeriak hezur muineraino kutsatu ditu herri honetako erakundeak. Gero eta lausoagoak dira sistema publikoa-ren egituren eta alderdi hegemonikoa-renen arteko mugak. Hainbestearino-koa da, non beste nonbait eskandaluzkoak izango ziratekeen afe-rek hemen albistegietako aipamen la-bur bat baino ez duten merezi. Mafia bertsuak kontrolatutako hedabideetako albistegietan. •